

## BESTELAKO XEDAPENAK

### EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

## 3114

*EBAZPENA, 2013ko maiatzaren 20koa, Turismoko zuzendariarena, zeinaren bidez onartzen baitira jardunean hasi, aritu eta jarduna uzteko bidaia-agentziek aurkeztu beharreko jakinarazpenen eta erantzukizunpeko adierazpenen eredu normalizatuak.*

Barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Zerbitzuen Europako 2006/123/EE Zuzentaraua eman zuten 2006ko abenduaren 12an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak. Espainiak, aipatu zuzentarau hori bere ordenamendu juridikora transposizioa egite aldera, bi lege egin ditu: bate-tik, azaroaren 23ko 17/2009 Legea, zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzkoa; eta, bestetik, abenduaren 22ko 25/2009 Legea, zerbitzu-jardueratan aske sartzeari eta aritzeari buruzko legera egokitzeko asmoz hainbat lege aldatzeari buruzkoa. Prozesu horretan, zenbait aldaketa egin behar izan dira. Adibidez, zuzentarau horretan xedatutako kokatzeko askatasuna eta zerbitzuak emateko askatasuna eraginkorrak izan daitezen, aurretiazko jakinarazpena eta erantzukizunpeko adierazpena sartu behar izan dira Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71. bis artikuluan.

Horrela, hizpide dugun zuzentaraua onartzearen eta hura Espainiako ordenamendu juridikoan nahitaez biltzearen ondorioz, nabarmen mugatu dira Administrazioak zerbitzu turistikoetan esku hartzeko dituen mekanismoak eta modua; lehenagoko baimenen orde-z, esaterako, autoerregulazio-elementuak erabiltzen dira orain. Horren erakusle litzateke apirilaren 23ko 7/2012 Legea, abenduaren 12an Europako Parlamentuak eta Kontseiluak barne-merkatuko zerbitzuei buruz emandako 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko asmoz hainbat lege aldatzeari buruzkoa. Euskadiko Turismoa Antolatzen duen martxoaren 16ko 6/1994 Legea, esaterako, apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatu du. Zehazki, apirilaren 23ko 7/2012 Legea hogeita hamazazpigarren artikuluan xedatutakoaren arabera, era honetara idatzita gelditu da martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 8. artikuluko 1. paragrafoa:

«1.— Turismo-enpresek aitorturik dute kokatzeko askatasuna. Baina jarduerari hasiera eman baino lehen, turismo-ostatuko enpresek, bidaia-agentziek eta lege honetako 37. artikuluan zehaz-turik dauden turismo-enpresa osagarriek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute Turismo Administrazioan. Adierazpena titularrak egin beharko du, eta bertan adierazi beharko du, bere erantzukizunpean, betetzen dituela erregelamenduz agindutako eskakizunak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta agintzen duela jarduerak irauten duen bitartean ere beteko dituela.

Turismo-ostatuko enpresek establezimendu fisiko bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute, enpresek zerbitzuak ematen dituzten lekutik, era horretara bermatzeko kontsu-mitzaileen eta zerbitzu-hartzaileen babesara».

Euskadiko Turismoa Antolatzen duen 6/1994 Legean bidaia-agentziei buruz xedatutakoa arautu du Bidaia Agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak. Aipatu dekretu horretako 4.3. artikuluan jasotakoari helduz «interesdunak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, edo bestela, interesduna ordezkatzeko duen pertsonak, betiere turismo-alorrean eskuduna den Zuzendaritzaren ebazpen bidez onetsitako eredu normalizatuaren bitartez».

Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuko 5. artikuluan araututakoaren arabera, jarduerari hasiera eman baino lehen egindako erantzukizunpeko adierazpenean aitor-tutakoetan aldaketarik eginez gero, horren berri emango zaio Turismo Administrazioari. Horrela, aipatu artikuluko horretako bigarren eta hirugarren paragrafoetan xedatutakoari helduz, itxiera oro aurretiaz jakinarazi beharko da, bai eta sukurtsal berrien irekiera eta itxiera ere, betiere, aipatu aldaketa horiek ez badute eraginik aurretiaz eraturako bermeen gain. Jakinarazi beharko da, baita ere, aurkeztutako erantzukizunpeko adierazpenean jasotako datu eta adierazpenetan egindako aldaketetatik bidaia-agentziaren bermearen, aseguruaren, taldearen edota titulartasunaren gain eraginik ez duen edozein. Hilabeteko epean jakinarazi beharko dira horiek guztiak, aldaketa egin denetik zenbatzen hasita.

Arestian azaldutako guztia aintzat hartuta, eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 190/2013 Dekretuko 17. artikulua bitartez Turismo Zuzendaritzari emandako eskumenak betez, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Jardunean hasi eta aritu ahal izateko Euskadiko bidaia-agentziek aurkeztu behar dituzten erantzukizunpeko adierazpenaren eta jakinarazpenaren ereduak onartzea, eta horien bi eredu eranstea agiri honi.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko maiatzaren 20a.

Turismoko zuzendaria,  
MARÍA MERCEDES GARMENDIA BERECIARTU.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHIAKORTASUN SAILADEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDADBIDAIA-AGENTZIEN JARDUERAREN EDO ERABERRITZEEI BURUZKO  
ERANTZUKIZUN AITORPENA

## TITULARRA

Izena edo baltzuaren izena:

NAN/IFZ:

Sexua: Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa ☐

Kalea:

Zk.:

Udalerrria:

Herria:

P.K.:

Tel.:

Helbide elektronikoa:

## LEGEZKO ORDEZKARIA

Izen-abizenak:

NAN:

Sexua: Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa ☐

## ESTABLEZIMENDUARI BURUZKO DATUAK EDO SALTOKIARI BURUZKOAK

Merkataritza-izena:

Kalea:

Zk.:

Udalerrria:

Herria:

P.K.:

Tel.:

Helbide elektronikoa:

Webgunea:

Frankizia bat izanez gero, aipatu frankiziaren izen komertziala:

UTM koordenatuak. X:

Y:

Google Mapen "URL"aren lokalizazioa:

Establezimendua sukurtsala eta saltokia bada, aipatu bulego nagusiaren datuak:

| Izen komertziala | CIE | Bulego nagusiaren helbidea | Udalerrria: | Herria | Tel.: | Harremanetarako pertsona |
|------------------|-----|----------------------------|-------------|--------|-------|--------------------------|
|                  |     |                            |             |        |       |                          |

ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA  
Samaniego 2  
01008 Vitoria-Gasteiz  
Tel. 945 01 70 55 / Faxe: 945 01 70 51GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA  
Easo 10  
20006 Donostia-  
Tel. 943 02 25 64 / Faxe: 943 02 25 42BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA  
General Concha 23  
48010 Bilbo  
944 03 14 78 / Faxe: 944 03 14 45

2013ko uztailaren 9a, asteartea

**AITORPENAREN GAIA:**

- ☐ (AVB) Jarduera hastea. Noiztik: .....
- ☐ (AVC) Titulartasuna aldatu (titular berria "Titularra" atalean jarritakoa da)
- ☐ (AVC) Taldea aldatu (talde berria "sailkapen" atalean adierazitakoa da)
- ☐ (AVC) Erantzukizun Zibileko aseguru aldatu (datu berriak inprimaki honetan adierazitakoak dira)
- ☐ (AVC) Fidantza aldatu (datu berriak inprimaki honetan adierazitakoak dira)

- Eraberritzea indarrean sartzeko data: .....

• **Sailkapena:**

| TALDEA                                           |
|--------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Handizkaria             |
| <input type="checkbox"/> Txikizkaria             |
| <input type="checkbox"/> Handizkaria-Txikizkaria |

| ESTABLEZIMENDUA                                                                                                                                                                                                                                                     |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Euskadin helbideratutako bulego nagusia.                                                                                                                                                                                                   |
| Bulego nagusia Euskadin helbideratua duen bidaia-agentzia baten <input type="checkbox"/> sukurtsala edo <input type="checkbox"/> saltokia.                                                                                                                          |
| Europar Batasuneko Estatu kideetan helbideratuta egonik bertan legez diharduten eta Espainiako lurralde nazionalako beste edozein lekutan saltokirik ez duten bidaia-agentzien <input type="checkbox"/> lehenengo sukurtsala edo <input type="checkbox"/> saltokia. |
| <input type="checkbox"/> Jarduera informazioaren gizarteko bakarrik baliabide elektronikoen bitartez gauzatzen duten bidai-agentzien bulego nagusia, administrazio-kudeaketa eta helbidea Euskadin izanda.                                                          |
| Jarduera informazioaren gizarteko bakarrik baliabide elektronikoen bitartez gauzatzen duten bidai-agentziaren <input type="checkbox"/> Establezimendu egonkorra edo <input type="checkbox"/> saltokia, administrazio-kudeaketa eta helbidea Euskadin izanda         |

**Behean sinatzen duenak honako hau deklaritzen du bere ardura:**

- Bidaia-agentziak arautzen dituen Dekretuak ezarritako baldintzak betetzen dituela bidaia-agentziak.
  - Pertsona juridikoa bada, balzuaeren eraketa-eskritura daukala eta ..... egunean inskribatu zela dagokion merkataritza-erregistroan ..... zk.-rekin.
  - Legezko ordezkaria ahalordetze-eskrituraz izendatu dela eta dagokion erregistroan inskribatu dela ..... zk.rekin.
  - Erantzukizun zibileko aseguru daukala egiaztatzen duen dokumentazioa eskura daukala, honako datuok dituenak:
    - Polizaren zk.: ..... Aseguru-erakundea: .....
    - Negozioaren ustiapeneko erantzukizun zibilari dagokion zenbatekoa: .....
    - Erantzukizun zibil zeharkako edo subsidiarioari dagokion zenbatekoa: .....
    - Lehen mailako ondare-kalteengatik erantzukizunari dagokion zenbatekoa: .....
    - Aseguruaren ordaindu izanaren ziurtagiria: .....
  - Fidantzaren eraketa eta mantenimendua egiaztatzen duten agiriak eskura dituela dekretu arautzailean jasotakoaren arabera; fidantzaren ezaugarriak honako hauek dira:
    - Zein autonomia erkidegotan edo EBko estatuan jarri den fidantza: .....
    - Fidantzaren gordailuaren erregistro-zenbakia EAEren Administrazio Orokorraren Diruzaintzan edo EBko estatuarenean: .....
    - Fidantzaren zenbatekoa: indibiduala: ..... € kolektiboa: ..... €
  - Beste administrazio eta erakunde publiko batzuk eska ditzaketen aginduzko baimen eta lizentziak dituela eta hori egiaztatzen duen dokumentazioa daukala.
  - Lokala, bidaia-agentzia gisa jarduteko erabilgarri duela egiaztatzen duen honako agiri hau duela:
    - ☐ Salerosteko eskritura ☐ Errentamendu- edo lagapen-kontratua
    - ☐ Beste bat .....
  - Jarduera egikaritzeko den denbora guztian eskakizunak betetzeko konpromisoa hartzen du.
- ..... (e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

| Izenpea * | Erregistrarako gunea |         |
|-----------|----------------------|---------|
|           | Esp.-zk.:            | Sigilua |
|           |                      |         |

\* Ondasun-erkidegoa izanez gero, kide guztiek izenpetu behar dute. Legezko ordezkari bat baino gehiago izanez gero, eta mankomunatuak badira, horiek guztiek izenpetu behar dute

**ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIOA:**

- Formulario honetako datuak Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren erregistro informatikoan sartuko ditugu, eta horren berri ematen dizuegu, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduarien 13ko legea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa) 5. artikuluan ezarritakoari jarraiki; erregistroaren helburua turismo-administrazioari dagozkion eginkizun eta eskumenak egikaritzea da. Interesdunak espresuki baimentzen du bere datuen tratamendua eta datu horiek Euskadiko turismo-enpresa eta -establezimenduen gidetan eta gainerako sustapen-dokumentazioan argitaratzea, eta horien egiazkotasunaren arduradun egiten da. Interesdunak sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko bere eskubideak egikaritu ahalko ditu, turismo-administrazioan bertaratuz zein idazki bidez eskatuta NANaren fotokopiarekin batera.

- Administrazioak behar besteko egiaztapen egingo ditu eskatzaileak aitorten honetan adierazitakoari dagokionez. Erantzukizun-deklarazioa ez aurkezteak, erantzukizun-deklarazioarekin batera edo horri gaineraturiko edozein datu, adierazpen edo dokumenturen akatsak, faltsutzeak edo funtsezko omisioak edo eskaturiko eskakizunak ez betetzeak jardueraren egikaritzapenarekin ez jarraitu ahal izatea eragin dezake, izan daitezkeen zehapenak aparte utzi gabe, baita interesdunaren betebeharra ere egoera juridikoa dagokion jardueraren hasierara leheneratzea ere, eta xede berarekin prozedura bat ezin eskatu ahal izatea urtebeteko aldian.

**EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILAREN (Araba/Bizkaia/Gipuzkoa)****.....KO LURRALDE ORDEZKARITZA**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHIAKORTASUN SAILADEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD**FUNTSEZKOAK EZ DIREN ALDAKETEN EDO BIDAIA-AGENTZIAREN JARDUERA  
ETETEAREN JAKINARAZPENA****TITULARRA**

Izena edo baltzuaren izena:

NAN/IFZ:

Sexua: Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa ☐

Kalea:

Zk.:

Udalerrria:

Herria:

P.K.:

Tel.:

Helbide elektronikoa:

**LEGEZKO ORDEZKARIA**

Izen-abizenak:

NAN:

Sexua: Emakumezkoa ☐ Gizonezkoa ☐**ESTABLEZIMENDUARI EDO SALTOKIARI BURUZKO DATUAK**

Merkataritza-izena:

Kalea:

Zk.:

Udalerrria:

Herria:

P.K.:

Tel.:

Helbide elektronikoa:

Webgunea:

Frankizia bat izanez gero, aipatu frankiziaren merkataritza-izena:

UTM koordenatuak. X:

Y:

Google Mapen "URL"aren lokalizazioa:

**Establezimendua sukurtsala edo saltokia bada, aipatu bulego nagusiaren datuak:**

| Izen<br>komertziala | CIE | Bulego nagusiaren<br>helbidea | Udalerrria: | Herria | Tel.: | Harremanetarako<br>pertsona |
|---------------------|-----|-------------------------------|-------------|--------|-------|-----------------------------|
|                     |     |                               |             |        |       |                             |

ARABAKO LURRALDE ORDEZKARITZA  
Samaniego 2  
01008 Vitoria-Gasteiz  
Tel. 945 01 70 55 / Faxe: 945 01 70 51GIPUZKOAKO LURRALDE ORDEZKARITZA  
Easo 10  
20006 Donostia  
Tel. 943 02 25 64 / Faxe: 943 02 25 42BIZKAIKO LURRALDE ORDEZKARITZA  
General Concha 23  
48010 Bilbo  
944 03 14 78 / Faxe: 944 03 14 45

**Izenpetzen duenak honako hau JAKINARAZTEN DU:**

☐ (AVD) Izenaren aldaketa. Aurrerantzean honako izena izango du: .....

☐ (AVD) Beste aldaketa batzuk: .....  
 .....  
 .....

• Aldaketaren indarrean sartzeko data: .....

☐ (AVG) **Jarduera etetea, behin behinekoa** (9 hilabetekoa gehienez):  
 Noiztik ..... ; Noiz arte: .....

☐ (AVG) **Jarduera etetea; behin betiko** itxi; noiztik: .....

☐ Bestetik ere, jakinarazten da ez duela Turismo Administrazioari jakinarazteke erreklamaziorik ez eta epaitegian edo epaitegitik kanpo behin betiko ebazteke erreklamaziorik ere.

☐ Jarraian adierazitako bermeak itzultzeko eskatzen da:

Zenbatekoa: .....€

Bermeen zaindari den administrazioa: .....

Bermeen gordailuaren erregistro-zk.: .....

**Eta honako agiri hauek aurkeztu ditu:**

.....  
 .....  
 .....  
 .....

..... (e)n, .....(e)ko .....aren .....(e)an.

| Izenpea * | Erregistrarako gunea |         |
|-----------|----------------------|---------|
|           | Esp.-zk.:            | Sigilua |
|           |                      |         |

\* Ondasun-erkidegoa izanez gero, kide guztiek izenpetu behar dute. Legezko ordezkari bat baino gehiago izanez gero, eta mankomunatuak badira, horiek guztiek izenpetu behar dute

**ADMINISTRATIOAREN INFORMAZIOA**

• Formulario honetako datuak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapen eta Lehiakortasun Sailaren erregistro informatikoan sartuko ditugu, eta horren berri ematen dizuegu, 15/1999 Lege Organikoaren (abenduarien 13ko legea, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa) 5. artikuluan ezarritakoari jarraiki; erregistroaren helburua turismo-administrazioari dagozkion eginkizun eta eskumenak egikaritzea da. Interesdunak espresuki baimentzen du bere datuen tratamendua eta datu horiek Euskadiko turismo-enpresa eta -establezimenduen gidetan eta gainerako sustapen-dokumentazioan argitaratzea, eta horien egiazkotasunaren arduradun egiten da. Interesdunak sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko bere eskubideak egikaritu ahalko ditu, turismo-administrazioan bertaratuz zein idazki bidez eskatuta NANaren fotokopiarekin batera.

• Administrazioak behar besteko egiaztapen egingo ditu eskatzaileak idazki honetan adierazitakoari dagokionez. Erantzukizun-deklarazioa ez aurkezteak, erantzukizun-deklarazioarekin batera edo horri gaineraturiko edozein datu, adierazpen edo dokumenturen akatsak, faltsutzeak edo funtsezko omisioak edo eskaturiko eskakizunak ez betetzeak jardueraren egikaritzapenarekin ez jarraitu ahal izatea eragin dezake, izan daitezkeen zehapenak aparte utzi gabe, baita interesdunaren betebeharra ere egoera juridikoa dagokion jardueraren hasierara leheneratzea ere, eta xede berarekin prozedura bat ezin eskatu ahal izatea urtebeteko aldian.

**EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILAREN (Araba/Bizkaia/Gipuzkoa)**  
 .....KO LURRALDE ORDEZKARITZA